

## ARANTZAZUKO KULTUR BATZORDEKO EKINTZAK

ARANTZAZUKO KULTUR BATZORDEA herriko eragile guztiei egindako deialdi baten ostean sortu zan. Aurrera atera zan Argiñatx Mendi Taldea, Elizportaleko Gazte Asanblada eta Bildu Kultur Batzordearekin. EAJ-k eta Adinekoen elkarteak ez zuten erantzunik emon. Batzordearen helburua, **kultur egutegi** bat sortzea eta **ekintza bateratuak** egitea da.

- Gure lehenengo ekintza Santa Ageda herritik abestutea izan zan. Harrera bikaina izan zuen herriko ohiturak mantentzeko ekintza honek.
- Martxoan, Argiñatx Mendi Taldeak Punta Lucerora irteera arrakastatsua antolatu zuen. Bi autobus joan ginen eta arrasti ederra pasatu gendun Pobellako herrian.



- Kanporamartxo egunean, Arantzazuko plazan gelditu ginen, San Adriango baselizara oinez igon bertan txitxi-burduntzia egiteko.
- Elizportaleko Gazte Asanbladak, Arratiako gazteentzat Lemoan antolatu behar izan zuen kontzertua. Bertan, Enkore eta Eskean Kristo taldeko partaideek sorturiko "The Jari Flowers" ikusteko aukera izan eben.
- Batzordeko beste ekintza bat, Arratiar gazte batzuk eginiko "Baso Ahaztuak" dokumentalaren emanaldia izan zan.
- Bigarren urtez, Arantzazuko Iturrien Bira antolatu zan. Heldu eta gazte, gure herriko iturriak ezagutz txangoa egin gendun, ostean hamaiketako ederraz gozatz.
- Hirugarren urtez, Bildu Kultur Batzordeak, sagardotegira irteera antolatu zuen. Donostiako kaleetako taberna desberdinetan pintxo bereziak dastatu ondoren, Usurbilera joan ginen giro ezin hobean bazkaltzera.
- Urterolez, Argiñatx Mendi Taldeak, urriaren 11an, Arantzazuko Mugari Bira antolatuko dau. Eguerdian, Monteronean bazkaria egongo da.
- Bildu Kultur Batzordearen hurrengo ekintza, azaroaren 14ean, San Martinetako IV. bertso afaria izango da.



Kultur batzordea herriko edozein elkarteri zabaldua dago. Gurekin harremanetan ipinteko edo iradokizunak emoteko [arantzazukokulturbatzordea@gmail.com](mailto:arantzazukokulturbatzordea@gmail.com) helbidea erabili daikezue.

Batzordearen hurrengo ekintzetan parte hartzen animatzen zaituegu.

**Argiñatx Mendi Taldea, Elizportaleko Gazte Asanblada eta Bildu Kultur Batzordea.**